

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa**

**Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko udalerrietako irabazi-asmorik gabeko elkarteei, norgehiagoka araudian, diru laguntzak ematea; garapenerako lankidetzako proiektuak eta herri pobreetako edo garapen-bidean dauden herrialdeetako haurrentzako aldi baterako egonaldiak, 2024ean. BDNS(I-identif.): 751559.**

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/751559>)

**Lehenengoa. — Onuradunak**

Deialdi honek eskainitako diru-laguntzen onura jaso ahal izango dute baldintza hauek betetzen dituzten erakundeek edo irazabazi-asmorik gabeko elkarteek:

- Eusko Jaurlaritzaren Elkarteen Erregistro Ofizialean izena emanda dutenak.
- Sozietatearen egoitza Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko udalerrietako batean dutenak, edota sozietatearen egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan izan eta proiektua Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko udalerrietako batean garatzen dutenak.
- Diruz lagun daitezkeen jarduerak garatzeko proiektuak dituztenak.
- Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko eskakizunak betetzen dituztenak.
- Eta zazpigarren puntuan ezarrita dauden dokumentuak aurkezten dituztenak.

**Bigarrena. — Helburua**

Diruz lagun daitezkeen proiektuak 2024ean garatu beharko dira eta hurrengo helburretako bat bete beharko dute:

- Herri pobreetako edo garapen-bidean dauden herrialdeetako oinarriko beharrei, osasun- edo hezkuntza-beharrei osoko arreta emateko kanpo-lankidetzako proiektuak.
- Herri pobreetako edo garapen-bidean dauden herrialdeetako hurrei, haien osoko garapenerako kaltegarriak diren gizarte- eta familia-egoeretan daudenei, aldi baterako harrera egiteko proiektuak, haien bizi-kalitatea hobetzeko asmoz, Amankomunazgoko udalerrietako batean egiten badira.

**Hirugarrena. — Oinarri arautzaileak**

Bi mila eta hamaseiko uztailaren hamalauko osoko bilkuran, udalbatzak erabaki zuen onartzea Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko garapenerako lankidetzako proiektuak eta herri pobreetako edo garapen-bidean dauden herrialdeetako haurrentzako aldi baterako egonaldien diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak (Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 173/2016 alean argitaratu zen, irailaren 9an), eta, bi mila eta hamazazpiko ekainaren hamabosteko osoko bilkuran erabaki zen aldatzea, (Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 155/2017 alean argitaratu zen, abuztuaren 16an).

Hala oinarriak eta deialdia, nola eskabide-eredua eta gainerako eranskinak Amankomunazgoaren webgunean daude ikusgai:

- [https://www.dma.eus/eu-ES/Mankomunitatea/Diru-laguntzak/Orriak/2024\\_5-proyectos-cooperacion-desarrollo.aspx](https://www.dma.eus/eu-ES/Mankomunitatea/Diru-laguntzak/Orriak/2024_5-proyectos-cooperacion-desarrollo.aspx)



## **Laugarrena. — Zenbatekoa**

Deialdiaren zenbatekoa, guztira, hoge mila eurokoa (20.000,00 euro) da, eta, 2024ko aurrekontuaren 2310.481.05 sailari egotziko zaio; alegia, «Oinarrizko gizarte zerbitzuak: kooperazioa eta elkartasuna bultzatzeko proiektuaren dirulaguntzak» atalari.

## **Bosgarrena. — Eskariak aurkezteko epea**

Eskabideak 15 egun balioduneko epean aurkeztu ahalko dira, laburpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

Durangon, 2024ko martxoaren 27an. — Presidentea, Idoia Otaduy Uriarte